

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kirol federazio eta klub txikietan euskara planak diseinatzeko ESKULIBURUA

2024ko otsaila



Proiektu honen ardura teknikoa
Emun Koop.E.k izan du

emun Euskara eta
berrikuntza soziala



AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. MARKO TEORIKOA	4
3. PROZESUA	6
4. LEHENENGO FASEA, ENTITATEKO DIAGNOSTIKOA EGIN	7
5. BIGARREN FASEA, HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA EGIN	8
5.1. AMIA analisisa.....	8
5.2. Gizarteari ekarpena.....	8
5.3. Bisioa eta erronkak.....	9
6. HIRUGARREN FASEA, PLAN ESTRATEGIKOA DISEINATU	10
6.1. ADIERAZLEAK ZEHAZTU.....	10
7. ERANSKINAK	12
7.1. Ezagutzan, erabileran, motibazioa eta erakundetzean eragiteko ekintzak.....	12
7.2. AMIA egiteko galdera gakoak eta adibideak.....	12
7.3. BISIO adibideak.....	14
7.4. Adierazle motak.....	15
7.5. Legedia.....	16
8. BIBLIOGRAFIA	19



1. SARRERA

“Euskararen erabilera normalizatzeko behar-beharrezkoa da gaur erabiltzen ez den eremuetara iristea eta helburu hori lortzeko arlo ezberdinetan erein behar da euskararen hazia. Hori horrela izanik, aspaldi jarri zuten Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako arduradunek (HPS) arreta hizkuntzak erabilera informala duen eremuetan, bereziki aisialdiaren esparruan... Ikerketek argi adierazten dute kirola dela EAEko gazteen sozializazio-eremu garrantzitsuenetakoa...”. Kirolean euskara sustatzeko plana 2021-2024, Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (hemendik aurrera HPS).

Esparrua oso zabala da, kirol diziplina asko daude eta bakoitzaren baitan dagoen egitura ere handia da, Euskal Herri mailako Federazioetatik hasi eta herrietako klubetaraino. Horregatik, eta euskararen erabilera areagotzeko planak ahalik eta gehien zabaltzeko nahian, Kirol federazio eta klub txikietan euskara planak diseinatzeko Eskuliburu hau prestatu du HPSk.

Eskuliburu honetan edozein kirol federaziok edo klubek euskara sustatzeko planak kanpoko laguntza gutxiarekin edo kanpoko laguntzarik gabe aurrera eramateko metodologiak eta tresnak ditugu. Metodologia eta tresna horiek aurrez Euskal Autonomia Erkidegoko 6 kirol entitatekin pilotatu dira: Amorebieta Kirol Elkarte, Arabako eskubalo Federazioa, C.D. Lantarón, Euskal Hockey Federazioa, Euskal Judo Federazioa eta Gipuzkoako Atletismo Federazioa

Eskuliburua honela antolatu dugu: sarrera honen ostean, 2. atalean, eskuliburua osatzeko erabili dugun oinarri teorikoa azalduko dugu labur-labur; eta 2.1. azpiatalean, kirolaren eta euskararen artean gaur egun, lege aldetik, zer-nolako lotura-egoera dugun arakatuko dugu. Hurrengo ataletan hasierako euskara plana edo euskararen plan estrategikoa diseinatzeko proposatzen ditugun 4 faseak azalduko ditugu: diagnostikoa, hausnarketa estrategikoa, diseinua eta adierazleak.

Eskuliburua osatzeko excel bat ere badugu, fase bakoitzerako tresnak eta horiek betetzeko jarraibideak barnebiltzen dituena.

Egitasmoa 2023ko irailtik 2024ko martxora bitartean landu da eta haren arduraria teknikoa Emun aholkularitzak izan du.

2. MARKO TEORIKOA

Euskara plana euskararen presentzia eta erabilera handitzen lagunduko duen plana da, erakundearen neurria egina, eta euskarari beste hizkuntzen artean bere tokia egiten lagunduko diona, bai orain, baita etorkizunean ere. Euskara plana erakundearen ezartzea hizkuntzen kudeaketa egokia da:

- Prozesua da: planifikatu >> egin >> baloratu >> ekintza zuzentzaileak aplikatu.
- Adostua da: erritmoa, baliabideak... erakundeak erabakiko ditu.
- Progresioa da: uneko egoeratik abiatuta, nahi den helbururaino.
- Zehar-lerroa da: erakunde osoari eragiten dio.



Eskuliburua Jose Maria Sanchez Carrión-ek (“Txepetxek”) definitu zituen ardatzetan oinarritzen da (Sánchez Carrión, 1987). Txepetxen arabera, hizkuntza batean gutxieneko konpetentzia izateko elkarreaginean dauden hiru zutabe edo “ontzi” hartu behar ditugu aintzat: motibazioa, ezagutza eta erabilera. Horrela, edozein hizkuntzaren biziberritzean eta normalizazioan hiru ardatz horiek landu behar dira, hiruretan nahikotasun maila ez bada lortzen ez baita normalizaziorik erdietsiko.

Motibazioa, ezagutza eta erabilera dira, beraz, hizkuntza baten bizi-kalitateari eragiten dioten hiru faktoreak: hasteko, hizkuntza ezagutu egin behar da (hiztegia, gramatika, fonetika...), bestela nekez erabil daiteke. Baina motibaziorik gabe, hizkuntza hori ikastea edota mantentzea ezinezkoa da. Esan gabe doa, ikasitako hizkuntzak erabili egin behar direla, erabiltzen ez den hizkuntza ahaztu egiten baitzaio hiztunari.

3 faktore horiei 4. bat gehitu diogu: erakundetzea. Erakundetzea da euskara planaren kudeaketa enpresaren kudeaketa sisteman txertatzea, egindako urratsak eta hartutako erabakiak, “enpresarenak” izanik, denboran iraunkorrak izan daitezken. Hau da, lortutako erabilera finkatuz joango da eta atzerapausoak ekidingo dira.

Ikus faktore bakoitzean eragiteko aplikatu daitezkeen ekintzen adibidea [eranskinetan](#).

Euskara plana abiatzeko, beraz, 4 arloei begirako urratsak eta helburuak zehaztuko dira. 4 ardatzok *euskara-kirola markoa* osatzen dute, laguntza-koadroa da eta kirol entitate baten ohiko jardun-eremuak irudikatzen ditu eta euskara non eta zertan erabili erakusten digu.



1. ARDATZA: EUSKARAREN EZAGUTZA

- 1.1 Klubeko / Federazioko Langileak
- 1.2 Entrenatzaileak
- 1.3 Federatu aurretiko kirolariak
- 1.4 Federatutako kirolariak

2. ARDATZA: EUSKARAREN ERABILERA

- 2.1. Elkartearen irudia
- 2.2. Barne harremanak
- 2.3. Kanpo harremanak

3. ARDATZA: ENTRENAMENDUAK

- 3.1 Entrenatzaileak/begiraleak
- 3.2 Federatu gabeko kirolariak eta taldeak
- 3.3 Federatutako kirolariak eta taldeak

4. ARDATZA: HIZKUNTZA KUDEAKETA

- 4.1 Euskara plana izatea
- 4.2 Estatutuetan euskararen araua izatea
- 4.3 Euskararen ziurtagiria izatea
- 4.4 Hizkuntza irizpideak zehaztuta izatea
- 4.5 Lanpostuetako hizkuntza profila zehaztuta izatea
- 4.6 Entrenatzaileen hizkuntza ezagutza jasotzea
- 4.7 Entrenatzaile/epaileentzako formazioa euskaraz eskaintzea

Hauetz guztiaz gain, ezin dugu ahaztu lege markoa. Ikus indarrean dagoen legedia [eranskinetan](#)

3. PROZESUA



Euskararen plan estrategikoa edo lehenengo euskara plana diseinatzeko, 3 urrats nagusi hauek egingo ditugu

01. Euskararen **DIAGNOSTIKOA** egin

Helburua: non gauden ezagutzea.

Baliabideak: diagnostiko tresna (datuak jasotzeko tresna).

Metodologia: datu aitortuak jasoko ditugu, ahal bada, taldean. Beharrezkoa bada, neurketak eta behaketak egingo ditugu.

Eraitza: euskarak gure entitatean duen egoeraren argazkia eta erabilera portzentajeak.

02. HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA egin

Helburua: nora heldu nahi dugun adostea (BISIOA).

Baliabideak: hausnarketarako dinamikak eta txantiloiak.

Metodologia: lan saio bat, taldean, AMIA analisisa eta interes-taldean inguruko hausnarketa egiteko eta Bisioa eta erronka nagusiak adosteko.

Eraitza: euskararen Bisioa, erronka nagusiak eta estrategiak.

03. EKINTZA PLANA *diseinatu*

Helburua: zer egingo dugun zehaztea.

Baliabideak: helburuak definitzeko txantiloia, ekintzen menua, ekintza-plan eredu

Metodologia: lan saio bat edo bi, taldean.

Eraitza: hurrengo 3-4 urteetarako helburuak eta ekintza plana, epeak, arduradunak, baliabideak eta jarraipen eta ebaluazio sistema (adierazleak)

4. LEHENENGO FASEA, ENTITATEKO DIAGNOSTIKOA EGIN

Lehenengo fase honetan euskarak gure entitatean duen egoeraren eta erabileraren erri jasoko dugu, euskara-kirola markoak proposatzen dituen ardatzen eta elementuen arabera: euskararen EZAGUTZA entitatean, ERABILERA irudian eta kanpo eta barne erabileretan, ENTRENAMENDUAK eta HIZKUNTZA KUDEAKETA.

Informazioa modu aitortuan jaso dezakegu edo behaketak eta neurketak egin. Edozein kasutan, gomendagarria da taldean egitea eta taldean adostea arlo bakoitzeko egoera zein den.

Datuak era honetan jasoko ditugu:

%0 >> guztia gaztelaniaz bada; hau da, hartzaileak ez du ezer euskaraz jasoko



%25 >> gehiena gaztelaniaz bada; hau da, hartzaileak zertxobait euskaraz jaso dezake
 %50 >> gutxi gorabehera erdia, euskaraz bada; hau da, hartzaileak erdia inguru euskaraz jaso dezake
 %75 >> gehiena euskaraz (ere) badago, hau da, hartzaileak ia guztia euskaraz jasotzeko aukera dauka
 %100 >> dena ele bietan edo euskaraz badago, hau da, hartzaileak informazio guztia euskaraz jasotzeko aukera dauka

5. BIGARREN FASEA, HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA EGIN

Bigarren fase honen helburua da euskararen egoeraren eta erabileraren diagnostikoko datuak oinarri izanda, entitateak euskararen erabilera areagotzeko egin dezakeenaren inguruan hausnartzea eta epe ertainera begirako helburu orokorra(k) adostea.

Horretarako, urrats hauek egingo ditugu:

1. AMIA analisia egin
2. Gizarteari egin diezaiokegun ekarpenaren inguruan hausnartu
3. Euskara planaren Bisioa eta erronka nagusiak adostu

5.1. AMIA analisia

AMIA analisiaren helburua da une batean antzeman daitekeen egoera ebaluatzea, gero erabakirik egokienak hartzen laguntzeko. Horretarako, entitatearen barruan zein kanpoan (herrian, inguruan...) dauzkagun aldeko eta kontrako faktoreak jasoko ditugu matrize ximple batean:

- ~ Barruko aldeko faktoreak > indarguneak
- ~ Barruko kontrako faktoreak > ahuleziak
- ~ Kanpoko aldeko faktoreak > aukerak
- ~ Kanpoko kontrako faktoreak > mehatxuak.

Ikus galdera gakoak eta adibide batzuk [eranskinetan](#)

Matrizea betetakoan, saiatuko gara faktoreak elkarren artean lotzen, indarguneak sendotu eta ahuleziak txikiagotzeko, aukerak aprobetxatuta eta mehatxuak murriztuta:

- ~ Zer egin dezaket barruko indarguneak blindatzeko edota are gehiago indartzeko? Kanpoko aukeraren batek lagundu ahalko dit horretan?
- ~ Zer egin dezaket barruko ahuleziak txikiagotzeko? Barruko indarguneraren batek lagundu diezadake? Kanpoko aukeraren bat aprobetxatu dezaket?
- ~ Kanpoko zein aukerak lagunduko dit nire entitatean euskararen erabilera areagotzen? Nola, zer egingo dut horretarako?
- ~ Kanpoko zein mehatxu zaindu edo ekidin behar dut? Nola egingo dut?

5.2. Gizarteari ekarpena

Aurrez ere aipatu dugu ikerketek argi adierazten dutela kirola dela EAEko gazteen sozializazio-eremu garrantzitsuenetakoa. Baita eskolan euskaldundutako gazte belaunaldi berrien eskolaz kanpoko jarduera nagusia ere. Ondorioz, kirola da euskararen erabilera sustatzeari begira eskola eta kalearen arteko zubi lana egin dezakeen esparrua.



Honengatik, garrantzitsua da gure kirol entitateak ingurunean duen inpaktuaren inguruan eta gizarteari egiten dion ekarpenaren inguruan hausnartzea, baita euskararen erabilerari dagokionez ere.

Horretarako, Euskaliten Kudeaketa aurreratuaren ereduak proposatzen dituen 2. eta 4. elementuetan jarriko dugu arreta berezia:

2. elementua: BEZEROAK (kirolariak, federatuak, bazkideak...). Gure zerbitzu edo produktuen hartzaileen hizkuntza beharrak identifikatu behar dira, haiekiko harremanetan eta eskaintzen zaizkien zerbitzuak diseinatu eta ematerakoan kontuan izateko.

4. elementua: GIZARTEA. Gure entitateak gizartearekin duen konpromisoari hizkuntzarekiko konpromisoa ere gehitu behar diogu.

5.3. Bisioa eta erronkak

Erakunde aurreratu batek argi izan behar du zein den bere eginkizuna (misioa), nora iritsi nahi duen (bisioa) eta zer landu behar duen bisio hori lortzeko (estrategia). Bisioak entitatearen nortasuna definitzen laguntzen du. Aurrerago, oro har 5-10 urteko epean, Gure entitatea izatea espero dugunaren deskribapena da.

Bisioak galdera hauei erantzuten die:

- ~ Non jarri nahi dugu arreta, zein interes taldetan?
- ~ Non egon nahi dugu, zein egoeratan, 5-10 urte barru?
- ~ Zer egingo dugu ikuspegi hori lortzeko?
- ~ Zergatik da garrantzitsua hori lortzea?

Eta hurrengo ezaugarriak izan behar ditu:

- ~ Argia eta zehatza: joan harira, idatzi 3-5 esaldi.
- ~ Etorkizunari begirakoa: adostu non egon nahi duzun.
- ~ Iraupen jakinekoak: 5-10 urtetan lortzeko modukoa.
- ~ Helburuetan oinarritutakoa: helburu eta adierazle neurgarriekin lotu (erronkak).
- ~ Anbiziosoa baina errealista: amets egin baina zuhur jokatu.
- ~ Abstraktoa: xehetasunetara heldu gabe, lortu nahiko zenuketen horren deskribapen orokorra egin.

Ikus Bisioaren adibide batzuk [eranskinetan](#)

Bisioari begira, erronkak identifikatuko ditugu.

Erronka aldaketa da; hau da, helburuekin alderatuta, erronka egungo egoeratik urrun samar nabari dugu eta aldaketa esanguratsuak eskatuko dizkio gure entitateari.



Egungo egoera oinarri izanda eta etorkizunerako adostu dugun Bisiora heltzeko, aldaketa nabarmenenak zein ardatz eta elementutan egingo ditugun erakutsiko digute erronkek.

Epeari dagokionez, epe ertain-luzera begira lortzekoak izango dira eta askotan Bisioari jarri diogun epearekin bat etorriko dira.

Erronkekin lotuta, eta haiei begira, zehaztuko ditugu, hurrengo fasean, helburuak; hauek, epe motzerako, 1-2 urterako zehaztuko ditugu.

6. HIRUGARREN FASEA, PLAN ESTRATEGIKOA DISEINATU

Hirugarren fase honen helburua da entitatean euskararen erabilera areagotzeko 4-5 urterako plan estrategikoa zehaztea.

Horretarako aurreko urratsean adostu dugun Bisioa gogoratuko dugu, gogoan izateko NORA joan nahi dugun, eta ondoren, zehaztutako noranzkora joateko erronkak, estrategiak eta ekintzak zehaztuko ditugu, NORAnzko horretara ZER eginez eta NOLA eginez identifikatu beharko dugulako.

Eredu asko daude plan estrategikoa diseinatzeko. Edozein erabiltzen dugula ere, kontuan izan behar dugu betiere plan estrategikoa ez dela helburua, tresna baizik, *nora* joan nahi dugun adieraziko diguna eta bidea egiten lagunduko diguna.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2021ean landu zuen Kirolean euskara sustatzeko plana 2021-2024. Kirola hain eremu zabala izanda, zehatz planifikatu zituzten plan estrategikoaren atalak. Eredu hau erabili zuten:

- Bisioa
- Arlo giltzarriak eta azken helburuak
- Eremu estrategikoak
- Helburu estrategikoak eta ekintza plana
- Mapa estrategikoa
- Aginte taula estrategikoa eta planaren jarraipena

Ikus Kirolean euskara sustatzeko plana 2021-2024 [hemen](#)

6.1. ADIERAZLEAK ZEHAZTU

Plan estrategikoaren diseinuaren amaieran, jarraipena egiten lagunduko diguten adierazleak zehaztuko ditugu. Adierazleak neurri kualitatiboak edota kuantitatiboak dira eta erronkak / helburuak neurtzeko balio dute; lortzen ari garen emaitzen gaineko informazioa ematen digute. Aldi berean, proiektu bat nola garatzen ari den jakiteko elementuak dira. Prozesu edo jardueraren baten bilakaera eta emaitza ahalik eta modurik objektiboenean neurtzen eta baloratzen lagunduko diguten datu-multzoak lortuko ditugu horrela.



Proiektuen planifikazioa, jarraipena zein ebaluazioa egoki burutzeko, bai eta emaitzak hobetu ahal izateko erabaki egokiak hartzeko ere, garrantzitsua da adierazle egokiak aukeratzea eta diseinatzea.

Adierazleen izaera askotarikoa da, neurtu nahi dugun alderdiaren arabera baitira eta euren artean egokitu eta konbinatu daitezke, informazio zehatza eta erabilgarria izateko. Ikus adierazle mota ohikoenak [eranskinetan](#)

Adierazle on batek bete beharreko ezaugarriak ahalik eta zehatzen adieraztea garrantzitsua da, emaitzen jarraipena eta ebaluazioa modu eraginkorrean egiteko. Horrez gain, adierazle bakoitzak zenbait aldagai definitu behar ditu, adierazlearen zehaztasuna, erabilgarritasuna eta eraginkortasuna bermatzeko.

Ondorengo taulan jaso ditugu adierazle on batek bete beharreko ezaugarriak eta bakoitzean zehaztu beharreko aldagaiak:

Ezaugarria	Deskribapena	Aldagaiak
Zehatza	Adierazlea argi eta zehatz definituko dugu (erantzuteko azkartasuna, gogobetetze maila...) interpretazio anbiguorik gabe.	Unitatea (zenbakia, ehunekoa edo beste unitate batzuk).
Neurgarria	Adierazleek neurgarriak izan behar dute, datuak edo informazioa modu objektiboan neurtu ahal izateko. Neurgarritasunak jarraipen eta ebaluazioa errazten ditu.	Datuen iturria Neurketa metodoa Lagina
Lortzeko modukoa	Adierazleak errealista izan behar du, eskuragarri dauden baliabideekin lortu daitezkeenak.	Atalaseak edo helburuak (gutxienez edota gehienez, kopuru zehatza, etab.)
Garrantzitsua	Adierazleak proiektuaren helburuekin eta emaitzekin zuzenean lotuta egon behar dute. Garrantzitsuak izan behar dute, proiektuaren arrakasta edo porrota neurtzeko.	Adierazleak nola lagunduko digun helburua neurtzen
Denboran eraginkorra	Adierazleak denboran zehar jarraitu eta ebaluatu ahal izateko egokiak izan behar dute, proiektuaren edo programaren aurrerapena neurtzeko.	Neurketa aldia (adb.: hilero, hiruhilero, urtero)
Eskuragarria eta errentagarria.	Adierazleak informazio eskuragarria erabiliz jaso behar dira. Edota, berariaz jaso behar baditugu, bildutako informazioak hori lortzeko egindako ahalegina justifikatu behar du.	Datuak nondik jasoko ditugun



7. ERANSKINAK

7.1. Ezagutzan, erabileran, motibazioa eta erakundetzean eragiteko ekintzak

EZAGUTZA

Langileei euskara ikasteko edota hobetzeko aukerak eskaintzeko ekimenak: euskara eskolak, trebakuntza saioak, lanpostuko laguntzak... Euskaltegietara joateko erraztasunak edo saioak zentroan bertan.

Erakundetzeari begira: lanpostuen hizkuntza beharrak zehaztu, langileen hizkuntza gaitasuna jasotzeko eta eguneratuta izateko sistema ezarri, formazio beharrak identifikatu eta plana diseinatu...

ERABILERA

Euskararen erabilera areagotzeko ekimenak: lankideen artean euskara erabiltzeko ekimenak (ahobizi-belarriprest...), lan tresnak euskaraz jarri eta erabileran trebatu, bileretan euskaraz egiteko aukerak identifikatu eta aplikatu, erakundearen eta interes taldeen arteko harremanak aztertu eta euskara txertatzeko urratsak egin, idatzizko ereduak (euskaraz edo ele bietan) sortu eta erabili...

Erakundetzeari begira: arlo desberdinetan euskara txertatzeko irizpideak edota jarraibideak adostu eta aplikatu, jarraipena egin (auditoritzak, neurketak, ebaluazioak), ekintza zuzentzaileak zehaztu...

MOTIBAZIOA

Langileen euskararekiko atxikimendua indartzeko ekimenak, euskara planean parte hartu eta euskara ikastera, hobetzera edota erabiltzera motibatuzko. Zuzeneko motibazioa lantzeko ekimenak izan daitezke (hausnarketa saioak) edota zeharkakoak (kanpainak, lehiaketak...)

Erakundetzeari begira: errekonozimendu ekintzak, komunikazioa...

ERAKUNDETZEA

Erakundearen hizkuntza politika idaztea: arlo desberdinetan euskara erabiltzeko irizpideak. Tresnak eta baliabideak. Egitura (euskara batzordea eta beste)

Euskara plana erakundearen sisteman txertatu. Plan estrategikoa eta kudeaketa plana. Arduradunak eta lidergoa

7.2. AMIA egiteko galdera gakoak eta adibideak

KANPO ANALISIA

Kanpoko faktoreen analisisa egiterakoan, gure entitatetik kanpo (herrian, gizartean, administrazioetan, beste kirol batzuetan, beste kirol elkarte eta/edo federazioetan...) ematen



ari diren ekintzak, gertaerak eta joerak jasoko ditugu eta aukera eta mehatxu moduan sailkatuko ditugu.

Aukerak

Gure inguruan zer gertatzen ari den eta zer izan daitekeen guretzat lagungarri.

- Zein joera ematen ari dira gaur egun gizartean, jendearen ohituretan, bizitza estiloetan, euskararen erabileran?
- Euskarari dagokionez, zer ekimen dituzte martxan gure inguruan administrazioek, kirol elkarte eta federazioek, bestelako eragileek (euskara elkarte, ikastetxe...)?
- ...

Mehatxuak

Gure inguruan zer ari den gertatzen, bereziki zaindu beharrekoa, guretzat oztopo edo zailtasun izan daitekeelako. Mehatxu hauek garaiz antzemanaz gero saihestu ala aukera bihurtu ditzakegu.

- Gure entitatean euskara gehiago erabiltzeko zer oztopo edo zailtasun izan ditzakegu gure herrian edo inguruan, beste kirol elkarte edo federazioekin... ?
- Zer ohitura edo joera berri antzematen ditugu, euskara gehiago erabiltzeko zailtasun izan ditzakegunak?
- ...

BARRUKO ANALISIA

Barne analisisian indargune eta ahuleziak aztertzen dira, aurreko fasean egindako diagnostikoak eta haren irakurketak lagunduko digu horiek identifikatzen (euskararen ezagutza, erabilera, langileen eta kirolariek jarrerak eta motibazioak, zuzendaritza...).

Indarguneak

Gure helburuak lortzen lagunduko diguten diezaguketen barne ahalmenak eta indarguneak dira.

- Zer egiten dugu ondo? Zer baloratzen digute ondo gure bazkide eta erabiltzaileek?
- Euskararen markoaren zein ardatzetan gaude indartsu? Aukerarik ematen al digu honen beste ardatz batzuetan ere hobetzeko?
- ...

Ahulguneak

Barruko mugak dira, gure helburuak lortzeko ditugun ahalmenak oztopatu ditzaketanak.

- Zer hobetu behar dugu?
- Euskararen markoaren zein ardatzetan gaude ahul? Beste zer ardatzetan eragin diezaguke ahulgune horrek?
- ...

Adibideak

Indarguneak

- ~ zuzendaritzak euskararen aldeko jarrera dauka
- ~ euskara gure entitatean sustatzeko lantaldea gaude
- ~ entrenatzaile guztiek edo gehienek dute euskaraz hitz egiteko gaitasuna.
- ~ ...

Ahuleziak

- ~ zuzendaritzak ez du euskararen (oso) aldeko jarrerarik
- ~ langile eta boluntario askok ez dute euskaraz ulertzen
- ~ ...

Aukerak

Mehatxuak



- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> ~ Kirolean euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak ugaritzen ari dira ~ Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak ematen ditu kirolean euskara sustatzeko proiektuak garatzeko ~ EKFB euskara planak garatzen ari da Euskal Federazioetan ~ Belaunaldi berriak, gehiago edo gutxiago, euskararen ezagutzarekin datoz, entrenatzaileak, kirolariak... | <ul style="list-style-type: none"> ~ Eskolatik kanpo gaztelera erabiltzeko ohitura dute gazteek ~ Euskara ez da kirolaren hizkuntza ~ Zenbait oztopo daude kirol-ekitaldiak euskaraz egiteko: epaileen ezagutza maila esate baterako ~ Erreferenteak diren kirolean euskal erreferente gutxi ~ Kirol-esparruaren finkotasun eza, entrenatzaile gazteek arin ihes egiten dute |
|---|---|

7.3. BISIO adibideak

EUSKARA ETA KIROLA, BISIOA, adibide batzuk

- XXXen filosofiarekin bat eginez, euskaraz bizitzeko giroa eta erosotasuna sortzea, bai laneko harremanetan, bai kanpora begira, eta horretan gizartearekiko erreferentzia mantentzea eta garatzea.
- XXX euskal kirolean eta euskal gizartean, euskararen sustapenean eta erabileran erreferente izatea, selekzio eta federazioetan euskararen ezagutzan eta erabileran eragiteko eta motibatuzko lider eta bidelagun izanez.
- Kirol taldea eredu eta eragile izatea euskara kirol jardunean txertatuta, kanpoko nahiz barruko harremanetan.



- XXX federazioa kanpora eta barrura begira erreferente izatea, euskaraz lan eginez, motibazioa sustatuz eta euskararen erabilera bultzatuz.
- Etorriko diren olatuen erreferente izan nahi horretan, euskarak gure kirolaren sasoiaren ispilu izan behar du. Denon inplikazioa beharrezkoa izango den heinean, guztion trebetasunak jarriko gaitu olatuaren aparrean.
- XXX Federazioak euskararen lanketan lider izan nahi du, euskararen garapena sustatuz, motibazioa bultzatuz eta elkarlanean oinarrituz.
- Kirolak eta futbolak hizkuntzaren transmisiorako duen garrantziaz kontziente izanik eta XXX gizarte eragile den heinean, bere erreferentzialtasuna, lidergotza eta eredugarritasuna erabiltzea, euskararen erabilera sustatu eta ahalbidetzeko, kanpo eta barne harremanetan, partidetan eta entrenamenduetan.

7.4. Adierazle motak

Adierazleen izaera askotarikoa da, neurtu nahi dugun alderdiaren arabera baitira. Hona hemen adierazle mota ohikoenak:

1. Emaitzari erreparatzen diotenak: emaitza espezifikoak neurtzen dituzte, proiektuak edo programak entitatean izan duen eragin zuzena adieraziz. Adibidez, formazioaren kasuan, ikasleen errendimendu akademikoa eta, euskararen erabileraren kasuan, erabilerak izan duen bilakaera.
2. Prozesuko adierazleak: hauek jardueren garapena eta eraginkortasuna neurtzen dituzte. Adibidez, prestakuntza-saio kopurua edo proiektuan parte hartu duten pertsona kopurua.
3. Kalitate adierazleak: proiektuaren edo programaren kalitatea neurtzen dute, emaitzen edo prozesuen kalitatea islatuta. Adibidez, bezeroen gogobetetzea edo zerbitzuaren erantzun-denbora.



4. Efizientzia adierazleak: errekurtsoak erabiliz lortutako emaitzen eraginkortasuna neurtzen dute, hau da, kostu-eraginkortasuna. Adibidez, emaitza bakoitzeko kostua edo jarduera bakoitzeko denbora.
5. Eragin adierazleak: proiektuak epe ertain edo luzean izan duen eragin soziala, ekonomikoa edo ingurumenekoa neurtzen dute. Eragin-adierazleak emaitza-adierazleak baino zabalagoak dira eta aldaketa estrukturalak edo jasangarriak islatzen dituzte.
6. Adierazle hauek proiektuaren helburuak eta testuingurua kontuan hartuta egokitzen eta konbinatzen dira, informazio zehatza eta erabilgarria izateko, era horretan jarraipena, ebaluazioa eta erabaki-hartzea errazteko.

6.1. Legedia

BOE 39/2022, Ley del deporte

- Herritarrek kirola egin ahal izango dute (...) *hizkuntza-aniztasuna errespetatuz*.
- Espainiako federazioek antolatutako lehiaketak beste hizkuntza koofizial bat dagoen autonomia-erkidegoetan egiten direnean komunikazio egokia egin beharko dute.
- Espainiako kirol-federazioen estatutuak, bai eta haien aldaketak ere, Kirol Kontseilu Gorenak berretsi ondoren, Kirol Erakundeen Estatuko Erregistroan inskribatuko dira, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren jarriko dira indarrean. Halaber, estatutuak federazioaren webgunean egongo dira ikusgai, hizkuntza ofizial guztietan.
- Federazio-arauak etengabe egongo dira eskuragarri federazioaren webgunean, hizkuntza ofizial guztietan eta autonomia-estatutuek aitortutako hizkuntza guztietan.
- (...) Aipatzen diren estatutuak eta arauak Kirol Erakundeen Estatuko Erregistroan inskribatuko dira, eta liga profesionalaren webgunean argitaratzen direnean sartuko dira indarrean. (...) Nolanahi ere, argitalpena ziurtatuko duen beste edozein bitarteko erabili ahal izango da, modu iraunkorrean irigarria izango da eta Estatuko hizkuntza ofizial guztietan egingo da.

2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisioaren eta kirolarena



- Jarduera fisikoa eta kirola baliatu beharko da euskaren erabilera sustatzeko tresna gisa herritarrek euskara erabiltzeko duten eskubidea bermatuz eta euskara ezagutza eta erabilera bultzatuz.
 - Neurriak hartu behar dira, bereziki, emakumeen kirolean, kirol egokitan eta *kirolean euskara sustatzeko programetan*.
 - Neurri orokorren eta berezien artean, eskumenen barruan eta baliabideen arabera, genero ikuspegia eta *euskararen erabilera txertatuta* izan beharko da.
 - Gobernantza onari eta jarduera fisikoari eta kirolari dagokienez, EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen barruan, herritarrek jarduera fisikoa eta kirola egitean euskara erabil dezaten sustatzera bideratu beharko dute beren gobernu-ekintza.
 - EAEn bi hizkuntza ofizial daudela azpimarratzen da eta euskararen erabilera normalizatzeko 1982ko legea eta horren eragina edo ondorioa ekartzen da gogora. Era berean, zehazten da EAEko kirol federazioen hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania direla.
 - Kirol federazioek beren estatutu-eta propioen bidez arautu behar dute beren funtzionamendua/egitura, hurrengo printzipioei jarraiki: *euskararen sustapena*, genero-ikuspegia, demokrazia oinarri, desgaitasuna duten pertsonen inklusioa...
 - Kirol federazioek bi hizkuntza ofizialak erabili behar dituzte gutxienez: federazio-lizentzietan, estatutu, araudi eta zirkularretan, lehiaketa karteletan, federazio organoen deialdietan, gobernu eta administrazio organoen bilkura aktetan.
 - Kirol ziurtagiriak interesdunak aukeratzen duen hizkuntza ofizialetan egin behar dira.
-
- Kirol federazioek hizkuntza normalizazioko planak landu, onartu eta gauzatu beharko dituzte aldiaren behin, federazioaren barne-jardueretan nahiz herritarrei zuzendutako jardueretan euskararen erabilera normala pixkanaka bermatzeko. Betetzen ez badute, dirulaguntzak jasotzeko gaitasunik gabe geratu ahalko dira federazioak, dagokion deialdiaren arauak hala ezartzen badute.
 - EAEko organo euskaldunek eta foru organoek kirol federazioen barruan hizkuntza normalizazio egokia lortzeko beharrezkoak diren baliabideak eta laguntza tekniko egokia eman beharko dizkiete kirol federazioei.
 - Eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programak eta jarduerak: programek euskara erabilera sustatu beharko dute ikasleen kirol jardunaren esparruan.
 - Programek euskararen erabilera sustatu beharko dute unibertsitate ikasleen kirol jardunaren esparruan.
 - Eskola adineko jarduera fisikoa eta kirola: programek kirol jardunean euskararen erabilera sustatu beharko dute.
 - Unibertsitateko jarduera fisikoa eta kirola: programek kirol jardunean euskararen erabilera sustatu beharko dute.
 - Lanbide Heziketako eta batxilergoko jarduera fisikoa eta kirola: programek kirol jardunean euskararen erabilera sustatu beharko dute.
 - Prestakuntza eta informazio programak sustatu beharko dira kirol federatuaren, eskola adineko kirolaren eta unibertsitate kirolaren arloan, bai eta lehiarik gabeko beste kirol adierazpen batzuen arloan ere. Programa horien eskaintzan, euskarari emango zaio lehentasuna, batez ere 18 urtetik beherakoentzako programetan.
 - Kirol ekitaldien leihatila bakarra (...): zuzendaritzak ekitaldiak antolatzeko zerbitzuak ematen dituzten erakundeen eta pertsonen datu basea egingo du eta protokoloa ere bai, izapideak errazteko eta ingurumen-inklusio-genero-*hizkuntza arloko* irizpideak bermatzen direla ziurtatzeko.
 - Une oro bermatuko da ikuskatua izaten ari den pertsonak berak haututako hizkuntzan arreta jasotzeko duen eskubidea.



- Kirol klubaren onura publikoaren deklarazioa: araudiz ezarritako hizkuntza normalizazio baldintzak betetzea.
- *Bermatzen da Jarduera Fisikoaren Euskal Agentziaren Zerbitzuarekin, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluarekin eta arau honetan aurreikusitako gainerako organoekin harremana duten pertsonak aukeratzeko duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea benetan baliatu ahal izango dutela, eta organo horiek aukeratutako hizkuntzan arreta emateko betebeharra izango dutela. Horretarako, behar diren neurriak hartuko dituzte, bereziki, dagozkien organoetako kide izateko izendatutako diren pertsonak bi hizkuntzak behar bezala ezagutzen dituztela baloratzea. Halaber, organo horiek bi hizkuntzak erabiliko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko beste edozein administrazio publikorekiko harremanetan.*
- Ikuskatua izaten ari den kirol pertsonari hautatutako hizkuntzan arreta jasotzeko duen eskubidea bermatu beharko zaio.

8/2022 LEGEA, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa

- Kirolak eragina du osasunean, hezkuntzan, lan-merkatuan, kontsumitzaile eta erabiltzaileengan, *euskararen erabileran*, ingurune naturalean eta abarretan.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroa sortzen da, zeina publikoa izango baita, kirolaren arloko eskumena duen sailari atxikita geldituko baita eta, horren bidez, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak ahalik eta ondoen defendatze aldera, ondorengo apartatuetan adierazitako informazioa emango baitu, euskaraz eta gaztelaniaz, modu argi, doako eta elektronikoki eskuragarrian. Araudi bidez ezarri beharko dira erregistroaren egitura, zereginak eta publizitate- eta funtzionamendu-araubidea.
- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea helburu hartuta eta zerbitzua euskaraz emango dela ziurtatzeko, lege hau indarrean sartu eta jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan lehen aldiz sartzeko herri-administrazioek ematen dituzten zerbitzu publikoen esparruan, gutxienez B2 hizkuntza-gaitasun maila ere egiaztatu beharko da, funtzio publikoaren araudian beste gaitasun-mailarik ezartzen ez denean eta dagozkion indize soziolinguistikoek hala eskatzen dutenean, nahitaez bete beharreko indarrean dagoen araudiari jarraiki.
- Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak bermatuko du prestakuntza-ekintzak euskaraz eta gaztelaniaz egin ahal izatea, bai eta euskararen erabileraren normalizazioa ere, arau honen xede den jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideen jardunaren eremuan, batez ere haurrei eta gazteei dagokienez.
- Xedapen honetan ezarritako epea bete eta bi urtera arte, Eusko Jaurlaritzak laguntza-programak ezarriko ditu lege honek eragindako pertsonen euskararen doako irakaskuntza bermatzeko, eta euskara-ikastaroetan izena emanda dutenei ikastaro horiek amaitu arte luzatuko zaie epea.



7. BIBLIOGRAFIA

Euskalit & Eusko Jaurlaritza (2021). Kudeaketa aurreratua eta hizkuntzen kudeaketa. Integraziorako gida. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/gestion_linguistica/eu_def/adjuntos/WEB-KUDEAKETA-AURRERATUA.pdf

Eusko Jaurlaritza (2022). Kirolean euskara sustatzeko plana. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/kirolean-euskara-sustatzeko-plana-2021-2024/>

Eusko Jaurlaritza (2022). 8/2022 LEGEA, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jardura fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa. *legegunea, Euskal araudiaren ataria*. <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/l/2022/06/30/8/dof/eus/html/webleg00-confich/eu/>

Eusko Jaurlaritza (2023). 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jardura fisikoaren eta kirolarena. *legegunea, Euskal araudiaren ataria*. <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/l/2023/03/30/2/dof/eus/html/webleg00-confich/eu/>

Gobierno de España (2022). Ley 39/2022, de 30 de diciembre, del Deporte. BOE, Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado. https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2022-24430

Sánchez Carrión, J. M. (1987). Un futuro para nuestro pasado. *Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. <https://ojs.ehu.es/index.php/ASJU/article/view/8593>